



DE MAR A MAR

PYRÉNÉES DE CIRQUE

CAMINOS EMERGENTES DEIALDIA 2017

DE MAR A MAR LANKIDETZA PROIEKTU BAT DA 2016-2019 ALDIRAKO, ETA EUROPAKO BATASUNAK FINANTZATZEN DU % 65EAN FEDER ESKUALDE GARAPENERAKO EUROPAR FUNTSAREN BIDEZ ETA INTERREG V-A ESPAÑA-FRANCIA-ANDORRA PROGRAMAREN BIDEZ (POCTEFA 2014-2020).

Honen helburua da gaur egungo zirkuaren sorkuntza eta hedakuntza erraztea Pirinioetako mugaren alde bietako eskualdeetan. Horretarako, zirkuko artistei orientazioa, prestakuntza eta laguntza emateko ekintzak erabiliko dira, profesionalekin harreman solidarioak sortuz : sorkuntza eta prestakuntzako zentroak, ekipo artistiko finkatuak eta programatzaileak.

Mugaren alde bietako 14 bazkidek jarri dute abian eta ekintza berritzaileak egin nahi dizu, adibidez :

- ebabesletza solidarioa talde finkatuen eta hasten ari diren artisten artean,
- laguntzarako funtsa komuna ikerketarako eta sorkuntzarako,
- aukeraketa eta jarraipena egiteko sistema bat, artisten eta profesionalen artean ezagutza trukatzeko espazio modura,
- trebakuntza-ekintzak artista gazteak prestatzeko,
- eta hedapen-sare bat artistei lehen urratsetan laguntza emateko eta programatzaileak lagun egitearen garrantziaren inguruan sentsibilizatzeke.

Caminos Emergentes proiektuaren deialdia merkatura sartzeko ekintzaren barruan dago. Hain zuzen ere, artistei hedapen-denbora eta ikusleen aurrean egiteko denbora ematen zaie, produkzio sortu berriak perfektionatzeko eta estatuko eta atzerriko sareetan hedatzeko hobeto prestatzeko. Proiektuaren beste helburu bat da mugaren alde bietako programatzaileei artista gazteei lagun egitearen eta arrisku artistiko gehiago hartzearen garrantzia azaltzea

Proiektu honetan zirkuko 6 edo 7 numero zabalduko dira eta kabaret batean sartuko dira, bertsio birekin : bat aretoan eta bestea espazio publiko batean (bertsio ibiltaria egiteko aukera). Numero bakoitzak gehienez hiru artista edukiko ditu platoan eta hamar artista izango dira kabaretean. Bazkide interesdunek zuzendari artistiko bat aukeratu dute eta zuzendari horrek egituratuko ditu numeroak eta kabareteko eszenaratzeaz arduratuko da hiru eguneko egoitzan (Bilbon).

Proiektuak kabaretaren hedapena bermatzen du, hemen aipatutako ekintzen barruan. Proiektuaren bazkideen sarean ez dauden programatzaileek ere behean adierazitako egunetatik kanpora programa dezakete kabareta, artistak libre egonez gero. Enpresa batek hartuko du kabaretaren produkzioaren ardura aparteko data horietan (kontratuak...).

HELBURUAK

Caminos Emergentes proiektuak helburu hauek lortu nahi ditu :

- Artistek eskualdeetako beste errealitate batzuk eta hedapenerako beste leku batzuk ikustea ;
- Ikusleek sortze-prozesuan dauden lanak ikusteko aukera izatea;
- Ekoizpen artistikoak zabalkuntza-bide desberdinetara egokitzeko aukera izatea;
- Sektoreko artisten eta profesionalen arteko topaketak sortzea;
- Gertutasunaren zabalkundea erraztea mugen alde bietan.

AUKERAKETA EGITEKO IRIZPIDEAK

Deialdi hau zirku « **sortzailearen** » adierazpen mota desberdinetako profesionalentzat da, Frantzia eta Espainiaren arteko mugaren alde bietako eskualdeetakoak (bertan bizi direnak edo egoitza soziala bertan daukatenak).¹

De Mar a Mar proiektuaren bazkideek osatutako aukeraketa batzordeak arreta berezia emango dio proposamenen kalitate artistikoari eta horiek garatzeko aurreikuspenei.

DEIALDI HONI ERANTZUTEKO, ARTISTEK HAU EGIN BEHAR DUTE:

- ✓ Lan **labur** bat eduki behar dute (5 eta 30 minutu bitartekoa), **berria, gutxi zabaldua², teknikoki arina** eta sormen-prozesu handiago bati lotuta. Platoan bat eta hiru artista bitartean. Lan hori **espazio publiko** batean eta **aretoan** emateko modukoa eta 6 edo 7 numero izango dituen « kabaretean » sartzeko modukoa izango da.
- ✓ Zabaltzeko lekuetara teknikoki egokitzeko gai izango dira (areto txikia, kanpoaldea, plazak, belarra, eta abar);
- ✓ Data hauetan libre egongo dira:
 - **2017ko maiatzaren 31, ekainaren 1a eta 2a:** Kabaretaren egoitza Bilbon (Euskal Herria, Espainia).
 - **2017ko ekainaren 3a:** Estreinaldia Bilbon, Zirkualde jaialdia (Euskal Herria, Espainia).
 - **2017ko uztailaren 12a:** Les Mercredis de la Rue (Ax Les Thermes, Frantzia).
 - **2017ko uztailaren 15a:** Nocte jaialdia (Graus, Espainia).
 - **2017ko uztailaren 16a:** Pirineos Sur jaialdia (Sallent de Gállego, Espainia).
 - **2017ko abuztuaren 9a eta 15a bitarteko** data bat, baieztatu barik, San Lorentzo jaiak (Huescako Udala, Espainia).
 - **2017ko abuztuaren 23tik 28ra edo 2017ko abuztuaren 30etik irailaren 2ra:** Quiero Antzokia. Sous réserve. (Nafarroa, Espainia).
 - **2017ko irailaren 17a:** Scène de Pays Baxe Nafarroa Herri Antzokia (Euskal Herria, Espainia).
 - **2017ko iraileko 3. astearen eta urriaren erdialdearen arteko data bat, baieztatu barik, eta 2017ko irailaren eta 2018ko maiatzaren arteko data bat, baieztatu barik**, Jean Jaurès Unibertsitatea (Tolosa, Frantzia).
 - **2017ko urriaren 14a:** La Grainerie, Festival L'Européenne de Cirques (Tolosa, Frantzia).
 - **2017ko abenduaren 1a edo 2a:** Harri Xuri Kultur Aretoa (Luhuso, Frantzia).
- ✓ **2017ko ekainetik abendura** libre egotea, Caminos Emergentes sareak proposatutako egunetan.
- ✓ Proiektua eramango duen egitura juridikoa edukitzea (lagapenerako kontratua, fakturazioa, ordainketak...).
- ✓ *Caminos Emergentes* proiektuaren laguntza jasotzen duen artista zabalpen-prozesu aktiboan egongo da.

¹ Araba, Aragoi, Bizkaia, Katalunia, Nafarroa, Akitania Berria eta Okzitania-Mediterraneoko Pirinioak eskualdeak, eta Frantzia eta Espainiaren mugaren alde biak.

² Urte bi baino gutxiago edo 10 eta 15 data bitartean. Informazio modura, aukeraketa batzordeak alde batera utz ditzake irizpide hauek.

BALDINTZA LOGISTIKOAK ETA TEKNIKOAK

Kabaretaren barruan egongo diren numeroak laburrak eta teknikoki arinak izango dira. Ildo horretatik, langile teknikoek ez dute oraindik jasoko, salbuespenak salbuespen.

BALDINTZA FINANTZARIOAK

- Artista bakoitzak eta ordezkari bakoitzak 300 euro jasoko ditu, BEZ berreskuragarria barne delarik (soldata-masa).
- Proiektuak ez du teknikari baten edo zabalpenaren arduradun baten ardurarik hartuko.
- Turismo-automobil baten garraio-gastuak honela kalkulatuko dira : 0,30 € BEZ x km+bidesariak (material mota, automobil mota eta pertsonen kopurua ikusita, alda daiteke). Ekonomia eta ingurumenaren inguruko arduragatik, autoa partekatzea gomendatzen da.
- Biran, ostatua eta dietak antolatzaileak ordainduko ditu edo per-diem egingo da.

PROZESUA

1. PROIEKTUAK AUKERATZEA

- **Deialdia De Mar a Mar** programaren **webgunean egongo da**, www.demaramarblog.wordpress.com, bai eta proiektuaren bazkideen webgune guztietan ere **2017ko otsailaren 17an**.
- Deialdiaren amaiera-eguna: **2017ko martxoaren 12an, 00 :00etan**.
- Aukeraketa batzordearen bilerak eta behin betiko aukeraketa: **2017ko martxoaren 30ean eta 31n**(La Central del Circ, Bartzelona, Espainia).
- Aukeratutako proiektuen iragarkia: **2017ko apirilaren 6an**.
- Kabaretaren egoitza: **2017ko maiatzaren 31n, ekainaren 1ean eta 2an**, Bilbo (Euskal Herria, Espainia);
Estreinaldia: **2017ko ekainaren 3an**, Zirkualde jaialdia, Bilbo (Euskal Herria, Espainia).

2. HAUTAGAIK HAUTAGAITZA AURKEZTEA:

- **Hautagai izateko inprimakia** bete behar da www.demaramarblog.wordpress.com webgunean. Ikuskizunaren zati baten lotura (bideoa) bidaltzea gomendatzen da.
- **Posta elektronikoz bidali behar da** La Grainerie-ra (prod.europe.grainerie@gmail.com, artxiboen gehieneko neurria: **5 MB** bidalketa bakoitzean):
 - Talde artistikoaren Curriculum Vitae;
 - Ikuskizunaren fitxa teknikoa;
 - 2017-2018ko biren egutegia;
 - Dokumentuak: argazkia, bideoak (bideoen loturarik ez dagoenean soilik), marrazkia, prentsa-txostena...
- **Bazkide batekin jarri behar da harremanetan**. Hautagaitza aurkezteko, hautagai bakoitzak harremanetan jarri behar du La Grainerie edo proiektuko beste bazkide batekin : **Posta elektronikoz jarriko dira hitzorduak** elkarrizketa presentzial baterako, edo telefono edo Skype bidezko elkarrizketa baterako.

CAMINOS EMERGENTES PROIEKTUEN DEIALDIRAKO KONTAKTUAK

Gogoratu: Deialdiko hautagaiei La Grainerie edo proiektuaren lurraldeko beste erreferente batengana jotzea gomendatzen zaie (ikusi bazkideen zerrenda).

La Grainerie / *De Mar a Mar*

(+ 33) (0)5 61 24 92 03

Deialdirako, jo **Nathalia Duque** andrearengana prod.europe.grainerie@gmail.com

Elkarrizketak egiteko kontaktuak:

Hélène Métailié h-metailie@la-grainerie.net edo **Jean-Marc Broqua** jm-broqua@la-grainerie.net

www.demaramarblog.wordpress.com/

“DE MAR A MAR” PROIEKTUAREN BAZKIDEAK

La Grainerie (Okzitania)

APCC - La Central del Circ (Katalunia)

Associació de Circ Rogelio Rivel (Katalunia)

Ax-Animation (Okzitania)

Bilboko Udala (Euskal Herria)

Huescako Udala (Aragoi)

Belén Alvarez (Nafarroa)

Consorti Transversal (Katalunia)

Communauté d’agglomération du Pays Basque:

Pôle territorial Errobi /Hameka (Akitania Berria)

Pôle territorial Garazi Baigorri/Scène de pays Baxe Nafarroa (Akitania Berria)

Huescako Aldundia (Aragoi)

Réseau en Scène Languedoc-Roussillon (Okzitania)

Université Toulouse Jean Jaurès (Okzitania)

Lido, Ville de Toulouse (Okzitania)